



Munduko Rugby Txapelketa

Frantziak erraz menperatu zuen Fidji

Mundialeko final laurdenak jokatzeko txartela eskuratu dute «oilarrak»

FRANTZIA		FIDJI
<ul style="list-style-type: none"> • Blanco • Lafond • Sella • Mesnel • Saint André • Camberabero • Galthié • Cabannes • Benazzi • Champ • Roumat • Cadieu • Ondarts • Marocco • Lascubé 	<p>33 9</p> <p>Anotazioak: Frantzia. 6 entseiu: Sella (12' eta 71'), Lafond (33', 42' eta 68') eta Camberabero (59'). 3 transformazio: Camberabero (12', 42' eta 71'). Zigor kolpe bat: Camberabero (19')</p> <p>Fidji. Entseiu bat: Naruma (74'). Transformazio bat: Koroduadua (74'). Zigor kolpea: Koroduadua (1')</p> <p>Arbitroa: D. Bevan (Gales)</p> <p>Zelaia: Grenoble 18.000 ikusle</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Koroduadua • Seru • Aria • Naisoro • Lovo • Serevi • Vosanibola (Tavulutu, 42') • Dere • Tawake • Naruma • Domoni (Kato, 75') • Savai • Vuli • Baleiwai • Taga (Volavola, 9')



Severo Koroduadua, Fidjiko.

lari gutxi jokatzeko bait dute eta zela osoan egin bait dezakete. Baina aurrean hamabosteko sendoarekin topa egiten badute ez dute jokaldi geldie tan behar bezala asmatzen.

Hala ere, oso joko desberdina erakutsi zuten Canadaren aurkako partiduan egindakoarekin alderatuz Frantziaren aurka ohiko rugby egiten saiatu ziren etekin emankorritan lortu ez bazuten ere.

Euskal jokalariei dagokionez, maila polita erakutsi zuela esan beharra dago. Laskube bikain aritu zen, lehen partiduan bezala. Aurreko topaketetan oso indartsu agertu zen. Ziurrenera, Frantziako aurrelarien artean forma onenean da goen jokalaria izango da. Ondarts ere oso ondo egon zen, betiko moduan Euskal ordezkariek lan gogorra egin zuten, leku guztietara iritsiz. Meletan ere oso sendo ibili zen. Serge Blancok ohi bezala jokatu zuen, baina ezohizko bi edo hiru akats ere egin zituen. Horetako batean 70 metroko ostikada lortu zuten Fidjikoek eta ondorioz larri ibili ziren frantziarrak.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Frantziako selekzioak garaipen garrantzitsua lortu zuen Fidjiaren aurka, Munduko Rugby Txapelketaren barruan. Frantziak talde sendoago dela erakutsi zuen eta 33-9ko emaitzaz irabazi zuen. Emaitza honekin, frantziarrek bere multzoko lehen tokia ziuratu dute, orain arteko bi partiduetatik irabazi ondoren.

Frantziak ondo ikasita zeukan atzokoan Fidjiaren aurka egin beharreko jokoa. Hasiera hasieratik nagusitu ziren frantziarrak aurrean, joko geldian zein irekian, seriotasun handiz lehiatuz. Mele eta touchetan lortutako baloi ugari esker, hiru laurdenetako jokalariek erraz jokatzeko aukera izan zuten.

Sella eta Mesnelek atzekaldean izandako partaidetzak, Errumaniako taldearen aurka jokatzeko neurketan falta izan zitzaizkien eman zion Frantziari. Nahi adina baloi izan zuten beren jokoa azaltzeko eta markagailuko puntuaketa areagotzeko. Nahikoa izan zitzaizkien baloiaz jabetzen ziren bakoitzean bildu, baloia gorde eta mol dinamikoak eginez metro ugari irabaztearekin.

Fidjiko aurrelariak ere biltzen zuten zelaian zehar barreiturik egon ez zedin. Gero, Galthie mele erdiak nahi zuen jokoa agindu eta pixkanaka zuloa ireki zuten markagailuan. Argi utzi zuten urdinek baloia jabe direnean munduko atzelari onenak direla eta eskuko joko azkarrean errekurtso ugari dutela.

LAGISKET, Ondarts, Lascube eta Blanco dira

Frantziako selekzioarekin Munduko Txapelketa jokatzeko ari diren euskal rugbilariak. Lagisket bere taldeko jokalaririk onenetarikoak izan da orain arte jokatzeko bi partiduetan, eta Ondarts eta Blanco ohi bezala ari dira, indar eta ziurtasun handiz. Fidjiaren kontra hala ere, Blancok beregan ezohizkoak diren hutsegite batzuk egin zituen. Lascube hasierako hamabostetik kanpora geratu da, baina aurreragi izan dezake bertan sartzeko aukera.

Fidjitarrek bere aldetik, ez dute gehiegi aurreratu 1987ko Lehen Mundialez geroztik. Orduan aho za-

balik utzi gintuzten beren joko berezi eta erasokorrenekin. Joko moeta hori ongi datorkie '7kako rugbyari', joko-

Australiak justu eta Irlandak zein Eskoziak garaipen errazak

DONOSTIA

Australiak lanak izan zituen West Samoari irabazteko, baina azkenean 9-3 nagusitu ziren Wallabiesak Pontypoolen. Zigor kolpeak izan ziren partiduko gakoa, eta Michael Lynagh joko zabaltzaileak lortutako puntuak eman zituen garaipena Australiari. Euri jasa handia izan zen partidua hasi aurretik, eta zelai bustiaren gainean zailtasun izugarriak izan zituzten eskuzko jokoa egiteko, eta ostikada bidez egin zuten aurrera.

Ordezko jokalaririk asko zelairatu zituen hamabostekoan Australiako entrenatzaileak, eta hamargarren minuturako Farr-Jones lesionatu egin zen. Partiduak aurrera egin ahala, eta entseiuak lortzeko ezintasuna ikusirik, australiarrek hiru puntuko alde eskasa defendatzeaz ekin zioten.

Samoako jokalariek erasoan dohai handirik ez zuten erakutsi, eta markagailuan larri ibili arren Australiak arrisku handirik ez zuten izan partidua galtzeko. Hala ere, samoarren hiru laurdenetako lerroak etengabe eragotzi zituen australiarrek eskuz saiatutako jokaldiak. Horrela, Wallabiesak ostokadaz aurreratu behar izan zituzten metroak. Samoak duela

Atzoko emaitzak

Australia, 9 - Samoa, 3
 Irlanda, 32 - Japonia, 16
 Eskoziak, 51 - Zimbabwe, 12

egun batzuk Galesen kontra Arms Park-en garaipena lortzera eramane zuten joko bera egin zuten, emaitza bestelakoa izan arren atzokoan.

Azkenera, minutu gutxiaren faltan eta 6-3 markagailuan, australiarrek ondo kontrolatu zuten partidua eta ostikada bidez 22 metroko lerroan sartu zuten Samoa, Lynagh-ek hirugarren zigor kolpea sartu zuen arte.

IRLANDA ETA ESKOZIA

Irlandak gogor hasi zuen Dublineko Lansdowne Road zelaian Japoniaren kontrako partidua, eta ordu laurdena betetzera lortutako bi entseiek garaipena eman zioten. Emaitza 34-16koa izan zen, eta jokoaren ezaugarri bitxiak bi aldeek defentsan erakutsitako intentsitate falta izan zen. Irlandarrek lau entseiu lortu zituzten —O'Hara, Mannion (2) eta Staples— eta bi transformazio eta lau zigor kolpe, guztiak Keyes ostikatzailearen bidez. Japoniak aldiz



Craig Chalmers eskoziarra, eskuz erasoan jokoa zabaldu nahian.

hiru entseiu —Hayashi, Masuho eta Yoshida— eta bi transformazio —Hosokawa— lortu zituen. Emaitza horrekin, Irlandak final laurdenerako txartela ziurtatu du, eta Japonia aukerarik gabe geratu da.

Bestetik, Eskoziak 51-12 irabazi zion Zimbabweri. Ordezko jokalariek zelairatu arren, eskoziarrek irabazteko bete eta erraz jipoitu zuten Zimbabweco selekzio berri eta ahu-



Lenihan irlandarra.